



BARREN

TOKIKOM



Ilon 2020-03-24

Konfinatuta

Etxeko erredakziotik



COVID-19 birusa ahalik eta gutxien hedatzea funtsezkoa zela ulertuta, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunean hainbat neurri hartu genituela jakinarazi genizuen martxoaren 13an, tartean martxorako programatutako ekintzak bertan behera lagatzea. Informazioa premia biziko ondasuna izanik, baina, *BARREN* astekariari eta *BARREN.EUS* atariari eustea erabaki genuen. Koronabirusak eragindako krisiak bete-betean eragin digu gure eguneroko bizimoduan, eta hedabide handietako lankideak fin ari baldin badira ere beren egitekoan, iruditu zaigu inoiz baino beharrezkoagoa dela gertuko kazetaritza, egoera honetan inoiz baino premiazkoagoa zaigulako denoi ere gure herri edo auzoan gertatzen ari denaren berri izatea. Informazio eskubidea bermatzeko erronka jarri genion geure buruei, jakinda ez zela erraza izango. Eta zuzen geunden. Ez da batere samurra izan, baina errezik ez dago egoera honetan, ez guretzat eta ez beste inorentzat.

Gure jarduera egokitu behar izan dugu informazio eskubidea eta osasun publikoa babestea bateragarri egiteko. Telelana ezarri genuen, langileon eta gure solaskide zaretenon osasuna babesteko eta lan-kontziliazioa errazteko. Eta telelanean jardun gara, nor bere etxetik, nor bere baliabideekin eta telelan horri zaintza gehituta. Edizio digitala indartu dugu eta ahalegindu

gara krisiaren unean-uneko jarraipena *BARREN.EUS*-en ematen eta ezinbesteko izan denean bakarrik irten gara kalera, denon ardurara delako gaitz honi hegoak moztea. Aurrez-aurrekoak saihestu eta telefonoz eta e-postaz jardun gara zuekin, eta eskertu behar dizuegu eman diguzuen laguntza. Egunotan sutan dauzkagu gure sakelako telefonoak, eta herritarrok bidalitako bideo eta argazkiak gainezka gure gailuen memoriak eta *BARREN*-en posta elektronikoa. Horregatik, mila esker.

BARREN astekariaren banaketak ere eman digu burukomina. Zuen etxeetara iritsi nahi genuen, baina ez edozein modutan. Segurtasuna lehenetsi dugu, eta horregatik ez duzue gaur *Barren* buzoian jaso. Elgoibarren, portaletan laga dituzte aldizkariak banaketa-zerbitzua ematen digun enpresako langileek. Maskarak eta eskularruak jantzita aritu dira banatzaileak, euren buruak zaintzeko eta beste inor ez kutsatzeko. Mendaron, berriz, oinarriko zerbitzua ematen ari diren saltokien atarietan laga ditugu *BARREN* aleak. Badakigu modu honetan ez dugula bermatu harpidedun zareten guztiok gaur *BARREN* astekaria jasotzea, baina ez dugu modu egokiagorik topatu zuen informaziorako eskubidea eta guztion osasuna zaintzeko. Ulertuko duzuekoan, aldeztu aurretik, eskerrik asko, eta zaindu, zaindu dituzagun gure buruak.

BARREN

BARREN sare sozialetan





facebook.com/barrenaldizkaria
twitter.com/barreneus
instagram.com/barrenaldizkaria



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU



oso elkarri lotuta eboluzionatu dute matematikak eta fisikak hasiera-hasieratik. Fisikak problemak eskaini izan dizkio beti matematikari eta matematikak problemak ebazteko tresnak fisikari. Aspaldian esan zuten Galileok Jainkoak hizkuntza matematikoan idatzi zituela Unibertsoko legeak. Einsteinek, ezin sinestuzkotzat jo zuten, matematika giza gogoaren produktu bat izanik, nolatan lor zezakeen natura hainbesteko zehaztasunez deskribatzea. Eta bide beretik, Eugene Wignerrek, 1963ko fisika nobel

saridunak, matematikak natur zientzietan zuten arrazoiz kanpoko eraginkortasunari buruz honakoa esan zuten: "Ulertzen ez dugun eta merezi ez dugun oparibat da hizkuntza matematikoak lege fisikoak formulatzeko duen egokitasunaren mirakulua". Azken hamarkada luzeetan, gainera, giza jakintzaren gero eta esparru gehiagotan sartu da matematika, ekarpen garrantzitsuak eginez. Ekonomia eta bes-

"Espainiako estatuan erabateko konfinamendua ezinbestekoa da ZIUK kolapsatu nahi ez badira"

telako giza zientzietan (psikologian, politikan, soziologian...) eta, zer esanik ez, zientzia biomedikoetan.

Egunotan bizi dugun koronabirusaren mundu mailako izurritea da horren erakusgarri argia. Medioetan, epidemiologian eta osasun publikoan adituak direnek etengabe aipatzen dituzte birusaren hedapenaren modelo edo eredu matematikoak erabiliz eginiko aurreikuspenak. Konfinamendu ahulago edo gogorrago baten arabera eredu matematiko horiek ematen dituzten aurreikuspenak. Horretan diharduten fisikari eta matematikariek argi diote: Espainiako estatuan erabateko konfinamendua ezinbestekoa da ZIUK kolapsatu nahi ez badira. Gaur [astelehena] goizean Bilboko metroko bagoietan jendea lanera ezinbestean. Pertsona helburu. Denborak erranen.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaiola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855



BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Mendaroko ospitaleko langileak egiten ari diren lana txalotu dute ertzainek eta udaltzainek



Konfinamendu egoeran Osakidetza langileen lana eskertzeko txalok jotzen dituzte herritarrek euren leihotatik, baina joan zen zapatuan, ertzainak eta udaltzainak lan hori aurrez aurre eskertzerantz joan ziren Mendaroko ospitalera. Txalo zaparrada handi bat eskaini zieten langile guztiei. Bi minutu eskas egin zituzten txaloka eta lanera itzuli ziren guztiak. Une hunkigarria izan zen, bai atarira irten ziren langileentzat, eta baita leihoez barrura zeudenentzat ere.

Elgoibarko eta Mendaroko odol emaileek eskerrak eman dizkiete konfinamendu egoera honetan odola ematera joan direnei

Odola emateko eguna izan zen joan zen barikua Elgoibarren eta Odol Emaileen Elkartetik eskerrak eman dizkiete egoera honetan odola ematera joan ziren guztiei. Odol Emaileen Elkartearen lokalaren ezauzgarriak direla-eta, gehienez 30 lagun hartu ahal izan zituzten eta horietatik 26k eman ahal izan zuten odola: "Izugarria izan zen odol emaileen erantzuna eta esker ona agertu nahi diegu denei", esan dute arduradunek. Mendaron ere egun berean egin zituzten odol ateratzeak, babes neurriak hartuta. Badaezpadako neurriak aplikatuta hogeitun minutuko beheratze txanda osatu zituzten elkartekoek, eta 45 lagunek eman ahal izan zuten odola: "Oso harro gaude Mendaroko odol emaileekin, erantzun ezin hobea eman zutelako barikuan", zabaldu dute ohar bidez.

Beilatokiak ere itxi dituzte

Konfinamendua ezarri zutenean meza eta hileta elizkizunak ere bertan behera geratu ziren, baina hildakoei azken agurra egiteko, beilatokiak zabalik mantendu zituzten. Azken agur hori talde txikitik egin behar zen, gertuko senideekin soilik, eta elkarren artean gutxienez metro bateko distantzia gordeta. Aste honetan, baina, neurri zorrotzagoak ezarri dituzte koronabirusaren hedapena murrizteko, eta beilatokiak ere itxi egin dituzte. Hortaz, hildakoei ehorzketa edo errausketa emateko behar diren gutxieneko zebitzuak emango dituzte ehorzketa enpresek, eta azken agurra hilerrian bertan egin beharko da, talde txikitik eta babes neurriak hartuta.

'Zilarrezko haria', bakarrik bizi direnei konpainia egiteko

Bakarrik bizi diren adinekoei telefonoz konpainia egiteko 'Zilarrezko haria' zerbitzua indartu du Nagusilanak. Ekimen honetan parte hartzeko prest dauden herritarrek Nagusilan elkartarekin jarri daitezke harremanetan, ondorengo telefonoetan: 900 713 771 telefonora deitu eta izena eta harremanetarako telefonoa utzi behar da erantzungailuan. Horrez gain, 688 741 451 telefonora deitu daiteke asteleheneetik barikura, 10:30etik 14:30era, edo whatsapp bidezko mezu bat bidali daiteke.

Konfinamenduan adinekoei laguntzeko sarea antolatu dute

Etetik irten ezin dutenei laguntzeko *Guztion Artean* elkartasun sarea jarri dute martxan Gurutze Gorriak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean, eta Elgoibarko Udalak herritar boluntarioei dei egin die sare horretan parte hartzerantz. Helburua da pertsona horien premiazko beharrik asetzea: erosketak egitea, zaborra jaistea, botikak erostea... Interesatuek 945 222 222 telefonora deituta hartu dezakete parte. Mendaroko Udalak, bestalde, 70 urtetik gorakoei, bakarrik edo isolatuta bizi direnei eta mendekotasunen bat dutenei laguntzeko egitasmoa jarri du martxan. Laguntza behar duen auzotarren bat ezagutzen duen edozein herritarrek eska dezake zerbitzua 943 033 282 telefonora deituta edo erregistroa@mendaro.eus e-postara idatzita.

Neurri fiskalak hartu ditu Elgoibarko Udalak, koronabirusaren eragin ekonomikoa arintzeko

Elgoibarko Udalak hainbat neurri fiskal jarri ditu martxan, koronabirusak herriko enpresa, autonomo eta herritarrei eragingo dizkien kalte ekonomikoak arintzeko asmoz. Hauek dira, besteak beste, hartu dituzten neurriak: Jendearentzat itxita dauden bitartean, saltoki, taberna, kafetegi, jatetxe eta gainerako jarduera profesionaleri hondakinak biltzeko tasarik ez diete kobratuko. Terrazak jartzeari dagokion tasarekin ere gauza bera eragingo dute, eta Udalaren emakidako tabernen alokairuen kobrantza ere eten egin dute. Udal Kirol Patronatuaren abono kuotaren ordainketaren zati proportzionala itzuliko diete abonatuiei. Era berean, irailaren 15era arte luzatuko dute lbigailuen gaineko Zerga ordaintzeko epea.

Elgoibarko Udalak, beraz, kobrantza geldituko du salbuespeneko egoera honek iraun bitartean. Behin normaltasunera itzulita, data berriak eta zerga kontzeptuak kobratzeko egutegi berriaren berri emango du.

Krisi mahaia

Neurri fiskal horien harira, erabakiak elkarrekin hartzeko eta egoerarik okerreanean dauden herritarrei entzuteko momentua dela esan du Elgoibarko EHBilduk. Udalarekin elkarlanean aritzeko





prest daudela esan dute, eta gaineratu dute "poztu" egin direla koronabirusaren krisiaren aurrean Udalak hartu dituen neurri fiskalen barruan beraiek egindako proposamen batzuk aintzat hartu dituztelako. Hala ere, bestelako neurri batzuk ere hartu beharra ikusten dute, besteak beste, Elgoibarko Udalak Krisi Mahaia eratztea. Krisi Mahai horretan Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiak egon beharko lukete haien ustez, eta baita gizarte zerbitzuetako, berdintasuneko, babes zibileko, Udaltzaingoko eta boluntarioen sareko ordezkariak ere, denen artean ahalik eta neurri adostuenak eta eraginkorrenak bideratu ahal izateko.

Koronabirusari aurre egiteko neurri berriak hartuko ditu Mendaroko Udalak

Desinfekzio lanak, neurri fiskalak eta 70 urtetik gorako herritarren arazoak arintzeko neurriak iragarri ditu Mendaroko Udalak. Besteak beste, desinfekzio lanak areagotu dituzte jende gehien dabilen guneetan: saltokien atariak, farmaziak, ospitale ingurua... Era berean, Covid-19ak eragin dien sektore ekonomikoiei begira, neurri fiskalak lantzen dihardutela jakinarazi du Iñaki Arregi alkateak. Udala alderdi politiko eta langile guztiekin elkarlanean ari dela nabarmendu du, gainerako erakundeekin batera, pandemia geldiarazi eta herritarren ongizatea bermatzeko. Guztion inplikazioa beharrezkoa dela esan du alkateak eta etxean gelditzeko eskatu die mendarotarrei. "Nire eskerrak herritar guztiei, eta noski, lanean diharduten merkatariei, brigadako langile, erizain, eta mediku guztiei. Guzti honek onik badauka, egunotan ikusi dugun herritarren elkartasuna, balikoietan zabaldu ditugun kantu, irri, eta batez ere, txalo zaparradak dira. Elkarrekin eragingo diogu aurre, bat eginik, guztiok batera. Mila esker".

Etzeko hondakinak jasotzeko neurriak hartu ditu Mankomunitateak

Debabarreneko Mankomunitateak hainbat neurri hartu ditu etzeko hondakinak jasotzeko, eta besteak beste, errefusarentzako erabiltzen diren edukiontzi grisak koronabirusaz kutsatutako herritarren hondakinak jasotzeko erabiliko direla jakinarazi du. Mankomunitatek herritarren kolaborazioa eskatu dute. Gaixoen hondakin poltsak hermetikoki itxita eta erraz identifikatzeko moduan bota beharko dira errefusaren edukiontzira, zinta isolatzaileekin lotuta, adibidez. Gainerako hondakinak zuzenean zaborteigira edo erraustera bideratuko dituzte, eta zabor poltsak ez dituzte inolaz ere zabalduko. Hondakinak bereizita botatzen jarraitu behar dela gogorarazi dute, eta herritar guztien kolaborazioa eskatu dute. Garbiguneak zabalik egongo dira, baina langileek hiru txandatan eta babes neurriak hartuta lan eragingo dute. Hondakin handien bilketa eten egin dute, eta baita altzariak eta tresneria etxetik jasotzeko doako zerbitzua ere.



Hainbat artisau telazko maskarak egiten ari dira behar duenarentzat

Merkatuan maskara falta dagoela ikusita, Elgoibarko eta Mendaroko hainbat artisau maskarak egiten hasi dira. Besteak beste, Elgoibarren Zu+Ni, Azpi's bag, Emilia Nogales eta Pitxin-



txukoak ari dira lan horretan, eta Mendaron, Myriam Martin eta Georgina Lopez. Beharra duenak Facebook bidez kontakta dezake eurekin. Argazkian Mendaroko ospitaleko langileak ikus daitezke Myriam Martinek Mendaroko Leire jantzi-dendak emandako materialarekin egindako maskarak jantzita.

Atxutxiamaiika eta Ludotekaren udaberriko oporraldia, bertan behera

Atxutxiamaiika (Elgoibarko Izarra), Ludoteka (Zehar "Heziketa eta Programak") eta Elgoibarko Udala dira udaberriko oporraldiaren antolatzaileak, eta azken egunotan agintariek ezarritako neurriak ikusita, udaberriko oporraldia bertan behera lagatzea erabaki dute, "bizitzak erdigunean" jarritz. Arduradunek esan dute udako oporraldia antolatzeko lanetan hasi direla, eta ahal bezain laster emango dutela horren berri.

'Atxutxi etxian' egitasmoa jarri du martxan Atxutxiamaiikak

Konfinamendua arintzeko asmoz *Atxutxi etxian* egitasmoa jarri du martxan Atxutxiamaiikak umeentzat. Umeak entretenitzeko eta haiekin sormena lantzeko proposamenak egingo dituzte, besteak beste, eskulanak, jolasak edota katurako abestiak zintzilikatu dituzte sarean. Interesatuak www.elgoibarkoizarra.eus webgunean sartu daitezke, eta han aurkituko dute egitasmoaren berri ematen duen atala.

Liburuak itzultzeko epea maiatzaren 4ra arte luzatu du Gotzon Garate Udal Liburutegiak

Gotzon Garate Udal Liburutegiak maiatzaren 4ra arte luzatu du liburuak entregatzeko epea. Abisu berria jaso bitartean liburutegia itxita egongo da, baina jarri dituzte jendeari arreta emateko bideak: Telefonoz, 943 74 35 25 zenbakian; whatsapppe 688 710 138 zenbakian edota e-postaz, liburutegia@elgoibar.eus helbidetan. Era berean, online liburutegia martxan dagoela gogorazi dute. Liburuentzat www.eliburutegia.euskadi.eus webgunea erabili daiteke, eta filmentzat www.eliburutegia.euskadi.eus/films

Osasungintzako langileak koronabirusaz babesteko materiala sortzen ari dira Mekan 3D inprimagailuarekin

Osasungintzako langileek maskara eta babes materiala behar dutela-eta, Elgoibarko Meka ikastetxeko soldadura eta galdaragintzako sailean lanean jarri dira. 3D inprimagailua erabiliz, osasungintzako langileak babesteko tresneria sortzen ari dira. Honi lotuta, bestalde, <https://covid.euskadi.net> plataforma sortu dute hainbat lagunek Euskadiko ospitale-etarako babes materiala sortzeko, eta etxean 3D inprimagailua duten herritarrei taldera batzeko deia egin diete.



Eskolak itxita eta hautapropa atzeratuta

Haurreskoletatik hasi eta unibertsitatera arteko eskolak ematen dituzten zentroetan etenda daude eskolak martxoaren 12tik. Hasieran bi asterako etena iragarri zuten, baina koronabirusaren gaitza zenbat hedatzen ari den kontuan hartuta, epealdia *sine die* luzatzeko erabakia hartu du Hezkuntza Sailak. Hezkuntzari lotuta, bestalde, ekainaren 19an egitekoa zen unibertsitaterako hautapropa ere atzeratu egin dute. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian uztailearen 6tik 8ra egingo da.

“Ondo gaude, lasai, eta hau amaitzean berriz muxukatu eta besarkatuko dugu elkar”

▶ LEIRE ESNAOLA SAN LAZARO EGOITZAKO ERIZAINA



Koronabirusaren gaitza hedatzen hasi eta berehala hasi ziren babes neurriak hartzen zahar etxeetan: bisita kopurua eta bisiten iraupena murriztu zituzten hasieran, baina Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik, bisita guztiak debekatu dituzte, eta orain, telefonoz edo bideo konferentziaz hitz egiten dute egoiliarrek senideekin. Zahar etxe batzuetan birusa sartu da, eta egoera “larria” bizi dute, Eibarko Egogain Gerontologia Zentroan esaterako. Horren harira, Elgoibarko San Lazaro egoitzara jo dugu, han bizi duten egoeraren berri jasotzeko.

◆ Zein egoera bizi duzue San Lazaron?

Momentuz ondo gaude. Martxo hasieran hasi ginen babes neurriak hartzen: bisitak mugatu genituen, sarreran garbiketarako baliabideak jarri, jendeari tenperatura hartzen hasi ginen... Horrez gain, kanpo ekintza guztiak bertan behera utzi genituen, bai Nagusilane eskaintzen zizkigunak eta baita asteroko elizkizuna ere. Gerora, egoiliarren irteerak eta senitartekoen bisitak debekatu genituen. Agian neurri hauek hartzeak lagundu digu momentu honetan behintzat egoitzan koronabirus kasu bat bera ere ez izaten, ez egoiliarren artean, eta ezta langileen artean ere. Protokoloa Aldundiak ezartzen digu. Maskara kirurgikoak eta eskularruak erabiltzen ditugu langileok, eta eskuak behin eta berriz garbitzen ditugu. Garbitzaileek ere sarriago garbitzen dituzte eskuekin ukitzen ditugun elementuak, esaterako, baranda, txirrina, iturriak...

◆ Nola bizi dute egoiliarrek bisitarik eza?

Senideen falta eta kalera irten ezina, gogorra da. Orain garrantzitsuena beraien behar guztiak asetzea da, eta horretarako lantalde guztia egotea ezinbestekoa da. Horregatik, martxoaren 13an gure lan gatazka alboratu, eta greba bertan behera laga genuen. Egongo da gero ere aldarrikapenatarako denbora. Egoiliarrek ezagutzen dute egoera, eta ez dakit bizitzan momentu gogorrek bizitakoak direlako-edo, baina askotan guk baino hobeto daramate hau guztia. Lasai daude, askotan umoretsu eta momentuz tinko eusteko itxuran.

◆ Zein bitarteko dituzte senideekin harremantzeko?

Familiakoekin harremana desberdina da kasu batetik bestera: batzuek telefonoz hitz egiten dute, baina gaitasun hori ez dutenen kasuan whatsapp bidez bidaltzen dizkiegu familiakoei bideo txiki batzuk, eta guk geuk ere deitzen diegu telefonoz, lasai egon daitezten. Beste bide batzuk ere martxan ipintzeko lanetan ari gara.

◆ Eibarko San Andres egoitzatik salatu dute baliabideak falta dituztela. Zein baldintzatan ari zarete zuek lanean?

Material falta orokorra da egoitza eta osasun erakunde guztietan. Gure kasuan erabili eta botatzekoak diren maskara kirurgikoak berrerabiltzen ari gara. Aldunditik bidaltzen ditugun materiala, eta Elgoibarko Udaletik ere eskaini digute laguntza, materiala emateko eta ahal duten beste edozein laguntza eskaintzeko ere. Herritarrek ere deitu digute telazko maskarak edo plastikozko mantalak egiteko prest daudela esanez. Benetan eskertzekoa da. Ziur egon behar izanez gero laguntza eskatuko dugula. Bestalde, Aldunditik egunero deitzen digute gure egoeraren berri jasotzeko; bai egoiliar, bai material eta baita lantaldearen egoera ezagutzeko.

◆ Osakidetzako langileei entzun diegu presio eta ezinegon handiz ari direla bizitzen hau dena. Nola zaudete zuek?

Langileok urduritasun eta antsietate puntu batekin bizi dugu egunerokoa, eta hurrengo egunean zein egoera edukiko dugun ez jakiteak kezkatzen gaitu. Elkarri laguntzen saiatzen gara, denok dauzkagulako kezka berberak. Guk kutsatuko ditugun beldur gara, egoera okertzen bada EPI nahikoak jasoko ditugun beldur, edo gu gaixotuz gero egoiliarrak nork zainduko dituen beldur. Okerrrena iristear dagoela diote, eta beharren arabera neurri zorrotzagoak hartzeko plangintza prest daukagu. Egoeraren arabera isolamendu neurriak gogortzen joango gara, solairuka edo logelaka, beharren arabera. Baina dauzkagun neurriekin, gure esperantza da egoitzan kasu bat bera ere ez edukitzea. Gauero 20:00etan egoitzan ere txalo zarata izaten da eta horrekin beste egun bateko garaipena ospatzen dugu. Eskerrak eman nahi dizkiet egoiliarren senideei jasotzen ditugun animo eta eskertza mezuengatik, horrek laguntzen baitugu egunero gogor lanean jarraitzen. Azkenik, egoiliarren senitartekoei lasaitasun mezu bat bidali nahi diet: ondo gaude, lasai, eta guzti hau bukatzean berriz elkar muxukatu eta besarkatuko dugu.



Hamabost egunerako ezarri zuen hasieran Espainiako Gobernuak konfinamendua, eta beste bi astez luzatzeko erabakia hartu du Kongresuak aste honetan. Hortaz, Hego Euskal Herrian apirilaren 12ra arte iraungo du alarma egoerak. Horren eraginez, "behar-beharrezkoak" diren zeregi- netarako irten daiteke etxetik, eta soilik oinarrizko behar horiek asetzen dituzten establezimenduak daude zabalik. Konfinamenduaren aurpegi desberdinak jaso ditugu erreportaje honetan.

AINHOA ANDONEGI / ASIER ORBEA

Konfinamenduak baditu milaka aurpegi

ANDER ARRILAGA, Yudego botikakoa



♦ Farmaziak dira zabalik mantendu beharreko establezimenduetako batzuk. Zer moduz daramazue egoera?

Lanez gainezka gabiltza. Babes neurriak bermatzeko jendearen arteko distantzia gorde behar dugu, eta ondorioz, bezeroek kanpoan itxaroten dute. Hortaz, barruan dagoen bat irten arte, ez da hurrengo sartzen, eta horren ondorioz, denbora asko galtzen dugu.

♦ Sendagileek errezetak hartzeko epea luzatu dute, jendea gutxiago irten dadin botikak eroatera. Igarri al duzue?

Bai, bai. Jendeak botika gehiago eskatzen ditu, orduan bezero bakoitzarekin ere denbora gehiago ematen dugu. Jendea botika gehiago erosten ari da ahalik eta gutxien etortzeko hona.

Termometro gehiago ere saldu ditugu egunotan, jendeak badauka tenperatura kontrolatzearen ardura hori, eta gelak eta maskarak ere asko saldu ditugu. Une honetan ez daukagu maskararik, baina gela badaukagu. Hori bai, ohikoa baino garestiago, merkatuan lortzea oso zaila dagoelako. Koronabirusarekin zerikusia duten produktuak garestitu egin dira. Txina aurretik hasi zenez, hemen zeuden maskarilla guztiak hara saldu ziren, eta orain, hemen falta zaizkigu. Zaldibarko zaborteziaren kontua ere pare-parean tokatu zen, eta orduan ere jende askok erosi zituen maskarillak.

♦ Zein babes neurri hartu dituzue?

Bi langile etxean daude, badaezpada, ordezeko moduan. Eskularruekin egiten dugu lan, eta maskararik ez daukagunez, maskara gabe gabiltza. Eskuak sarri garbitzen ditugu, distantziak mantendu eta orain metakrilatozko manpara moduko batzuk jarri ditugu mostradorean, bi leihatila sortuz. Bezeroak binaka artatzen ditugu.

♦ Jende askorekin duzue harremana egunero. Badaukazue beldurrik?

Kezka bai, badakigu kutsatu gaitzkeela, baina langile gehienok gazteak eta patologiarik gabekoak gara, beraz, alde horretatik nahiko lasai gaude. Baina kontu handiz gabiltza, ez dugulako gaixotu nahi, batetik, gugatik eta gure senideengatik, baina bestetik, gure bezeroengatik. Jende askorekin egoten gara, eta gu gaixotuz gero, jende asko jartzen dugu arriskuan.

SONIA ARANBARRI, Ibarrenea okindegikoa



“Beldurrez eta kezka bizitzen ari naiz egoera hau, larritasunez. Lehenengo egunetan goiz eta arratsalde zabalik eduki nuen denda, baina berehala erabaki nuen ordutegia murriztea, eta orain, goizez bakarrik zabaltzen dut. Jendea etortzen da, baina ez lehen beste, eta askok kanpoan itxaroten dute. Jendeak orain kantitate gehiago erosten du, eta izoztu egiten du ogia, okindegira gutxiagotan etortzeko. Distantziak zaintzen ditugu, eta babes neurri batzuk ere hartu ditut: maskara eta eskularruak jantzita dihardut lanean, eta dirua ukitzen dudako bakoitzean eskuak garbitzen ditut gelarekin. Gure asmoa lanean jarraitzea da, etxekoren bat gaitoxen ez den bitartean edo beste agindurik ematen ez diguten birtartean”.

MIREIA RICO, Txarriduna hoteleko harrerako arduraduna



◆ Hasiera batean ez, baina gerora hotel eta ostatu guztiak ixteko agindua etorri zitzaizuen. Nola kudeatu duzue egoera?

Hasieran jatetxeak ixteko agindua etorri zen, eta halaxe egin genuen, baina hoteleko kafetegia oraindik zabalik mantendu genuen. Gerora, hoteleko kafetegia eta jatetxea ere itxi behar genituela esan ziguten, baina ostatuaz ez ziguten ezer esan. Sei bezero genituen hotelean, enpresetako langileak guz-

tiak, baina hain justu asteburu hartan Madrilgo bezero batzuk etorri zitzaizkigun, hiru bikote. Harrituta hartu nituen, eta galdetu nien nolatan etorri ziren egoera honetan, eta arduragabekeriak erantzun zidaten Madrilen hemen baino okerrago zeudela.

◆ Hotela ixtean, zer egin zenuten bezeroekin?

Bezero mexikar bat geneukan, eta ezin zuen bere herrialdera itzuli. Hori izan zen gure arazo nagusia. Badirudi bere lantegiak aurkitu diola etxeren bat alokairuan.

◆ Hotela eta jatetxea itxita, zein egoeratan zaudete langileak?



ERTEan gaude. Hotela zabalik egon zen bitartean ni lanean egon nintzen, bezeroen gosariak bideratzeko, harrera, fakturak eta e-posta kontrolatzeko, eta bezeroen zalantzak argitzeko. Baina ostatu guztiak ixtea erabaki zuen Gobernuak, larrialdi egoeraren batean hotelak ospitale moduan erabili ahal izateko, eta ordutik ni ere etxean nago. Badakigu aldi baterako izango dela, baina ez dakigu zenbat luzatu daitekeen aldi hori. Kezkatuta gaude apur bat, baina beste alde batetik lasai gaude, badakigulako egoera normaltzen denean lanera itzuliko garela.

AURORA TXURRUKA, Morroskilo dendakoa



◆ Estankoa zarete zuek, eta zabalik egotera behartuta zaudete. Nola ari zarete bizitzen hau guztia?

Kezka handiz, egia esan. Egun batzuk besteak baino hobek ditugu, baina gaur esaterako, triste samar harrapatu gaituzu. Bi langile gaude hemen, eta jende askorekin egoten gara harremanetan, diruarekin gabiltza, eta arriskua badaukagu. Eta gugatik baino gehiago, etxekoengatik gaude kezkatuta. Nire amak 91 urte ditu eta denean ari dira esaten adinekoak direla arrisku gehien dutenak eta babestu egin behar ditugula. Gero, akaso, neuk harrapatuko dut gogorrena, baina nik uste dut harrapatzen badut ere, pasatuko dudala.



◆ Zein neurri hartu dituzue alarma egoeran?

Bi orduz bakarrik zabaltzen dugu denda, 9:00etatik 11:00etara. Nahiago genuke etxean gelditzea, baina gutxieneko zerbitzuak ematera derrigortuta gaude. Prentsa saltzen dugu, eta tabakoa ere bai. Joan zen astean jende pila bat etorri zen tabakoa erostera, baina aste honetan jende gutxiago dabil. Horrez gain paper denda ere bagara, eta umeentzako kartulinarik edo margoak erostera ere etortzen da jendea, baina etxean geratzeko agindua dagoenetik jendeak errespetu han-

diagoa dauka. Denok behar izan dugu denbora apur bat mentalizatzeko, eta ni neu ere, joan zen astean eta aste honetan ez dugun berdin.

◆ Aurrerantzean etor litekeenak kezkatzen zaitu?

Bai, nik uste dut oraindik okerrera ikusteko gaudela, eta hau luzerako izango dela. Momentuz Mendaron eta inguru honetan lasai gaude, Gasteiz edo Madrilekin alderatuta, baina uste dut laster hasiko garela koronabirusari aurpegiak jartzen hemen ere, eta horrek beldurra ematen du.

JULIAN PERNICAS, Rezola gasolindegiko behargina



◆ Zer eragin eduki du alarma egoerak Rezola gasolindegian?

Gaur egungo gainerako gasolindegia gehienetan ez bezala, gurean langileok sartzen dugu gasolina depositoetan, baina koronabirusa dela-eta autozerbitzu erako gasolindegia izatera pasatu da gurea azken egunotan. Horixe izan da aldaketa nabarmenena, hala egiteko agindu baitigute, gu geu eta bezeroak ez kutsatzeko. Guk gasolina ematera ohituta daude bezero asko, baina horiek eta gainerakoek ere ondo hartu dute neurria eta ari dira moldatzen egoera berrira, eta nola egin asmatzen ez dutenei geuk ematen dizkiegu argibideak. Guk ez dugu ezer ukitzen, dena bezeroek egiten dute, txartelarekin ordaintzearena barne. Hori bai, tiketa ematen diegu, ertzainek geldituz gero gasolindegian egon direla erakutsi ahal izateko.

◆ Bezeroak ondo erantzuten ari dira hortaz?

Orokorrean bai, baina... badago pega bat. Igartzen ari gara

jende guztia ez dela betetzen ari etxean gelditzearena, ikusten ari baikara batzuk sarri etortzen zaizkigula gasolindegira. Orain gauza baten bila eta hurrengoan beste baten bila, denak bidaia batean eraman beharrean. Gasolindegiko ogia gustatzen zaie-lako datoz batzuk. Beste batean, gizon edadetu bat etorri zitzaidan kafe bat eta tabako pakete bat hartzera, eta bide batez, butano bonbona bat erosi eta autoari depositoa betetzera, jakinda ez dagoela autoan ibiltzeko inolako beharrik. Eta txarrena, adin bateko jendea dela, arrisku handieneko taldean daudenak. Lotsagarria da, eta salagarria batzuek duten aurpegia.

◆ Aztetu al duzue gasolindegiko denda ixtea?

Ez dago langileon esku erabaki hori hartzea. Eta herritarrei zer egin behar duten esateko ere ez gara nor. Ez daukagu autoritaterik. Ertzainei ere aipatu diegu, baina zaila da ezer egitea gasolina bila etorri direla baita euren aitzakia.

◆ Langile kopurua murriztu duzue?

Ordutegi berdina mantentzen dugu, 6:00etatik 22:00etara. Lehen, bi txandatan egiten genuen lan, hiru beharginek txanda bakoitzean, eta orain, bi lagun ari gara txanda bakoitzean. Bi langile zaharrenek jai hartu dute, euren segurtasunagatik eta lana ere gutxitu egin delako.

◆ Segurtasun neurriak zuen kabuz jarritakoak dira?

Gure ugazabak dituen gainerako gasolindegietan, Itziarko peajejoetan esaterako, ipini dituen segurtasun neurri berdinak jarri dituzte gurean. Aipaturikoez gainera, metakrilatozko manpara batzuk ditugu ordaintzak egiteko gunean.

AITZIBER ARRIZABALAGA, Eroskiko arduraduna



◆ Zein neurri ezarri dituzue Eroskiko beharginen segurtasuna bermatzeko?

Langileentzako hartu ditugun neurriak honakoak dira: hamar pertsona baino gehiagoko bilera guztiak bertan behera utzi ditugu. Elkartzen bagara, gure arteko bitartea gutxienez metro eta erdikoa izan behar da. Langileon artean eta bezeroen artean, bai kutxan eta bai mostradoreetan, distantzia minimoa mantendu behar da: 1,5 metro. Zinta batzuekin seinaleztatu ditugu lurrian distantzia horiek, lagungarri izateko. Aldageletan,

lagun bat edo bi egon daitezke aldiberean, eta garbitasuna handitu dugu. Sarrera zein irteeretan eskuak garbitzea derrigorrezko da, ura eta xaboiarekin. Etxetik uniformea jantzita etortzen gara, eta etxera ere halaxe joaten gara.

♦ **Larrialdi egoera ezarri zenetik gaur arte, moldatu eta eguneratu egin duzue segurtasun protokoloa ere, ezta?**

Bai, egunez egun berri behar izan ditugu neurriak eta egoerara moldatu. Eroski enpresak jakinarazten dizkigu neurriak.

♦ **Behargin kopurua mantentzen duzue?**

Lehen geunden langileok jarraitzen dugu lanean, eta batzuei lanaldia luzatu diegu, ditugun beharrei erantzun ahal izateko. Eroskiren egoitzako langileak ere etorri zaizkigu laguntzera, edukiera kontrolatzeko edo apalak hornitzeko, besteak beste.

♦ **Kezka eta beldurrak izango dituzue egoera honen aurrean. Langileek badute lanera ez joateko aukera?**

Bai, gure artean kezka da nagusi, lanean aritu ostean etxera joaten baikara eta han senideak dauzkagulako zain. Langileei laguntza ematen diegu, ordutegiak aldatuz, eta umeen zaintzadela eta, lanera etortzeko arazorik badute oporrak ere hartu ditzakete.

♦ **Eta zein dira bezeroentzat hartu dituzuen segurtasun neurriak?**

Ordutegi berria dugu, 20:00etara aurreratu baitugu itxiera ordua. Sarreran bi ilara egiten ditugu: 9:00etatik 10:00etara

bitartekoan, 65 urtetik gorako pertsonak, haurdun daudenak eta bestelako eragozpenak dituztenek dute dendan erosteko lehentasuna. 10:00etatik aurrera, berriz, osasun arloan lan egiten dutenek dute dendara sartzeko lehentasuna. Bezeroek plastikozko eskularruak jantzi behar dituzte sarreran, eta ezin dituzte erantzi irten arte. Erosketak egiten dihardutela 1,5 metroko bitartea mantendu behar dute gainerako lagunekiko.

♦ **Nola erantzuten ari dira bezeroak. Erosketa handiak ala txikiak egiten ditu jendeak?**

Bezeroak guk agindutako neurriak betetzen ari dira, arazorik gabe. Lehengo egunetan egun batzuetarako erosketa handiak egiten zituzten, eta batzuek hala egiten jarraitzen dute. Azken egunetan, baina, erosketa txikiak egiten ari dira, eta zenbaitzuek egunean bi edo hiru alditan ere etortzen dira erosketak egitera.

♦ **Zein dira azkarren agortzen diren produktuak?**

Gehien agortzen diren produktuak hauek dira: garbikariak, papela; bai sukaldekoa zein komunerakoa, azukrea, barazkiak eta lekaleak: dilistak, babarrunak, garbantzuak, e.a. Apalak egunero betetzen ditugun arren, agortu egiten dira aipaturiko produktu horiek.

♦ **Etxez-etxeko zerbitzuan eskaria handitu egin al da?**

Eskaera handiagoa da etxez etxeko zerbitzuan, baina zerbitzua emateko baliabideak ere handitu ditugu, eta arazorik gabe funtzionatzen ari da.

JON SALEGI, Debabarrenako Mankomunitateko langilea



♦ **Zer produktu erabiltzen ari zarete kaleak garbitzeko?**

Igerilekuean eta botatzen den kloroaren antzerako produktu batekin ari gara kaleak garbitzen [sodio hipoklorito]. Lixiba modukoa da.

♦ **Ze gune ari zarete garbitzen?**

Lagun asko elkartzen diren lekuak ari gara garbitzen bereziki, zabalik dauden dendak inguruak, bankuak... ilarak sotzen

diren leku horiek guztiak. Elgoibarren joan den zapatuan hasi ginen garbiketekin, eta martitzenean, Mendaron. Goizaldeko 6:00etatik 9:00etara aritzen gara garbitzen.

♦ **Debabarrenako herri guztietan ari zarete kaleak garbitzen, ezta?**



Bai, Debabarrena Mankomunitateko langileak gara gu eta zerbitzua ematen duen herri guztietan ari gara garbitzen. Hasiar herri batzuetan bakarrik (Elgoibar, Eibar, Ermua eta Sorluze) hasi baginen ere garbitzen, Ingurumen Sailaren baimena behar baitzen produktu hauekin lan egiteko, eta Udalen oniritzia gero.

♦ **Badakigu herritarrek eskertu dizuetela egiten ari zareten lan hau.**

Ez dago sinisterrik. Normalean, kaleak garbitzen dugunean eta, jendeak ez digu eskertzen egiten dugun lana; alderantziz, badirudi traba garela batzuentzat. Lan honekin hasi ginenean, baina, eskerrak eman zizkigun jendeak. Ikusgarria izan zen jendeak nola txalotzen gintuen. Hunkigarria.

♦ **Kalean diharduzue lanean. Beldurrik edo ezinegonik nabari duzue?**

Beldurra denok daukagula uste dut, eta geuk ere bai. Gainera garbiketarako daukan garrantzia dela eta, lana lagatzen azkenak izango ginateke gu.



Martxoaren 14an ezarri zuen Espainiako Gobernuak alarma egoera, eta horrekin batera, hamabost egunerako konfinamendua ezarri zuen. Joan zen astean, baina, epealdi hori beste hamabost egunez luzatzeko proposamena egin zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek, eta eguazteko bilkuran onartu zuen proposamen hori Espainiako Kongresuak. Hortaz, Hego Euskal Herrian apirilaren 12ra arte iraungo du konfinamendu aldiak. Baina, zer da konfinamendua? Zer egin daiteke eta zer ez konfinamendu egoera honetan? Hori argitzen saiatuko gara bi orriotan.

- AINHOA ANDONEGI -



Konfinamendua: zer egin dezaket?

Koronabirusa ahalik eta gutxien zabal dadin, aurrez aurreko eskolak eten eta aisialdiko ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituzten lehenik. Egunak aurrera joan ahala, neurriak gogortzen hasi ziren, eta konfinamendua ezarri zuen Espainiako Gobernuak martxoaren 14an. Etxean gelditzeko agindua eman zuen, eta soilik "behar beharrezkoak" ziren zereginetarako irteteko baimena eman zuen. Meza, ezkontza eta hileta elizkizunak ere debekatu zituzten, baina hildakoei azken agurra egiteko beilatokiak zabalik egon ziren joan zen atera arte. Orain, horiek ere itxi dituzte, eta ehorzketa etxeek lurperatze edo errauste zerbitzuak soilik emango dituzte. Mugak ere itxi dituzte, auto desplazamenduak ahalik eta gehiena gutxitzeko, eta debekatuta dago bigarren etxebizitzara joatea. Hori guztia zaintzeko kontrolak indartu ditu polizia, eta arauak betetzen ez dituzten herritarrei isunak jartzen hasi dira. Erakunde batzuek eskatu dute beharrezkoak ez diren jarduera guztiak eteteko, Txinan edota Italian egin duten bezala, baina gaur gaurkoz, Espainiako Gobernuak ez du erabateko konfinamendua ezarri. Hortaz, ahal den heinean etxetik ez irtetea da agindua. Ahal duen orok etxetik lan egin behar du, eta derrigorrez irtetea dagokionari babes neurriak zaintzeko agindu diote. Zurrumbilo honetan hainbat herritarrek zalantzak dituzte, ez dakite zer egin dezaketen eta zer ez, eta hori argitzeko asmoz Ertzaintzara jo du BARRENEK, eta handik helarazi digute konfinamenduaren araudia. Elgoibarren arauak betetzen direla zaintzea Udaltzaingoari dagokio, eta Mikel Arantzamendi udaltzainburuak eman dizkigu zainketa horren azalpenak.

KONFINAMENDURAKO ARAUAK

♦ **Irten naiteke etxetik?** Janaria erosteko, lanera joateko, adinekoak, adingabeak edo mendekoak direnak zaintzeko, bankura edo finantza etxera joateko, osasun etxera joateko, odola emateko, arazo larriren batengatik, zaborra ateratzera gertuen dagoen edukiontzira, maskota ateratzera etxetik gertu. Ezin da eraikineko eremu komunean ibili, hau da, garajeen, patioan edo eskaileretan ibiltzea debekatuta dago.

♦ **Desplazamenduetarako ziurtagiria:** Identifikatzen diren pertsonen ez zaie ziurtagiririk eskatuko, nahiz eta baloratu egingo den joan-etorria justifikatzeko ematen duen informazioa. Eman-dako informazioak zalantzaren bat sortzen badu, beste bitarteko batzuk erabiliz egiaztatu ahal izango da. Oraingoz ez

dago mugikortasun-ziurtagiri ofizialik.

♦ **Ahalik eta gutxien mugitu:** Desplazamenduak ahalik eta gutxien eta banaka egin behar dira, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko ez bada. Auto partikularretan gehienez bi lagun joan daitezke, metro bateko distantzia zainduz. Gidaria eta bidaiaria atzean, gidariarekiko diagonalean. Lanerako ibi-bilgailu profesionaletan gidaria eta kopilotua ibili ahal dira, metro bateko distantzia utziz.

♦ **Desplazamendua moto edo bizikletan:** Baimenduta dago aurreikusitako kasuetan, eta banaka.

♦ **Taxiak:** Bidaiari bakarra eramanez dezakete, desgaitasuna duen pertsona bati, adingabe bati, adineko bati edo autono-



Mikel Arantzamendi

Elgoibarko udaltzainburua

◆ Herritarrek argi daukate konfinamendua zer den? Jaso dituzue deiak zalantzak argitzeko?

Bai, jaso ditugu zalantzak dituzten herritarren deiak. Zorionez, larrialdi deirik ez dugu jaso,

denak izan dira konfinamenduaren araudiari lotutako dudak argitzeko deiak. Gurasoengana joan daitekeen edo bestelako mandaturen bat egin dezakeen galdetzen digute. Hain zuzen ere galdetzen duenak arauak betetzeko interesa duelako galdetzen du, eta hori ondo dago. Araua haustera doanak ez du ezer galdetzen.

◆ Udaltzaingoiari dagokio konfinamenduaren arauak betetzen direla zaintzea Elgoibarren. Zer moduz ari zarete?

Denetik dago, baina herritarren %95a baino gehiago oso ondo portatzen ari da. Baina beti daude tranpak egiten dituzten batzuk, eta horiek zaintzen daukagu lanik handiena. Baina gutxiengoak dira, eta alde horretatik pozik gaude. Orokorrean herritarrek bikain ari dira arauak betetzen, eta oso pozik gaude. Txalotzekoa da herritarren jarrera. Laguntza ere eskaini digute; maskarak, eskularruak eta gelak eman dizkigute lanerako eta hori eskertzen dugu.

◆ Arauak hausteagatik isunik jarri behar izan al duzue?

Bai, jarri ditugu batzuk. Adibidez jendea pasiatzera irten da. Jende gutxi ibiltzen den lekuan aurkitu ditugu batzuk, esanez han ez zela inor egongo eta horretatik irten direla. Denok hori egingo bagenu, akabo. Beste batzuk txakurra ateratzeko aitzakiarekin pasiatzera irten dira, edo etxetik urrunen geratzen zaien okindegi edo farmaziara joan dira. Esaterako, Ermuaranbide kalean bizi dena ezin daiteke Sigmako supermerkatua oinez joan erosketak

miarik ez duen pertsona bati laguntzeko kasuetan izan ezik.

◆ **Kirola eta aisialdia:** Debehatuta dago kirola egitera irtetea eta haurrak ezin dira parkera eraman. Bigarren etxebizitzara ezin da joan.

◆ **Pakete banatzaileak:** Ibili daitezke bide publikoan, lanean ari badira.

◆ **Garraio publikoa:** Bidaiarien artean metro bat gorde behar da.

◆ **Saltoki irekiak:** Janari eta edari dendak, farmaziak, osasun-zentroak, optikak, ortopediak, higiene-produktuen dendak, prentsa eta paper dendak, gasolindegia, estankoa, teknologiko eta telekomunikazioetako produktuen dendak, etxeko animalientzat janaria saltzen dutenak, Internet, telefono edo

“Herritarren %95etik gora oso ondo ari dira portatzen”

egitera. Batzuk ez dira konturatzen, baina zenbat eta zorrotzago bete etxean egoteko agindua, hau guztia lehenago bukatuko da. Ezin da egunero irten erosketak egitera. Gutxiago irten eta gauza gehiago erosi behar dira. Ogia erosteko aitzakiarekin egunero kalera irteten dira batzuk, eta egoera honetan erosi daiteke ogia lau egunerako eta izoztu, adibidez.

◆ Zuek derrigortuta zaudete lanagatik kalera irtetera. Nola daramazue egoera?

Ez da erraza. Guk ere nahiago genuke etxean egon, baina ezin dugu. Lanbide batzuetan derrigortuta gaude irtetera, baina etxean egoteko aukera duenak etxean egon behar du, lehenik eta behin bere burua babesteko, baina baita gainontzekoak babesteko ere. Hau errubera bat da. Gu lanera etorri behar gara herritarrek babesteko, eta eskatzen dugu gainerakoek etxean geratzeko gu geu babesteko. Gu kutsatzen bagara, gure etxekoak eta harremana izaten dugun guztiak arriskuan jarriko ditugu. Txaloak jotea oso ondo dago, baina askoz garrantzitsuagoa da etxean geratzea. Dena dela, berriz diot, Elgoibarren gutxiengoak direla arauak hausten dabilzanak.

◆ Gau batean udaltzainak Mikel Laboaren ‘Txorian txori’ abestiaren doinura irten ziren kaleak zaintzera. Zer dela eta?



Une hartan guardian zeuden udaltzainen inizatiba izan zen. Bateik, etxean egoteko agindua betetzen dutenei eskerrak emateko izan zen, eta bestetik, egun hartan hil zen lehen Osakidetza erizaina omentzeko. Tristura giro hura pixkat alaitzeko ekimena izan zen. Abestia ez da oso alai, baina euskaldunon izan ezan handia dauka. Aste honetatik aurrera, ahal den neurrian, 20:00etan udaltzainek abesti bat jarriko dute egunero, etxean geratzen direnei eta arauak betetzen dituztenei eskerrak emateko.

posta bidezko merkataritza-dendak, tindategiak, arropa-garbitegiak eta albaitaritza-klinikak. Kafea ematen duten saltokiek eramateko soilik prestatu dezakete. Ileapaindegia, lokutorioak eta beilatokiak itxita egongo dira. Asteroko azokak baimenduta daude, osasun babes neurriekin.

◆ **Etxera eramateko janaria:** Baimenduta dago etxeetara janaria eramatea.

◆ **Tailer mekanikoak:** Zabalik egongo dira baina premiazko konponketak egiteko bakarrik.

◆ **Isunak:** Zigor arinetan, 100 eta 600 euro arteko isunak jar ditzakete; zigor gogorretan, hortik gora, eta 60.000 euro arteterainokoak.



► BORJA ORTIZ DE URBINA

PNEUMOLOGOA

Pneumologoa da Borja Ortiz de Urbina Antia (Elgoibar, 1991) eta Gurutzetako Ospitaleko Pneumologia Sailean dihardu lanean. Koronabirusaren inguruko argibideak eman ditu, eta aldi berean, egunotan Osakidetzako langileek bizi duten estres egoeraz eta duten lan-kargaz hitz egin digu. Idatziz erantzun die gure galderi.

- AINARA ARGOITIA -



“Psikologikoki nahiko kaltetuta ikusten ditut gaixoak, bereziki adin nagusikoak”

◆ **Lehenengo eta behin, Borja, zein da Gurutzetako ospitalean bizi duzun egoera? Azken egunotan Bizkaian izan dira kutsatze gehien. Nola zaudete antolatuta pandemia honi aurre egiteko?**

Esan duzun bezala, Bizkaian azkeneko egunetan kutsatze kopurua oso handia izaten ari da. Hemen, adibidez, gutxi gora-behera koronabirusaz kutsatu diren 200 pertsona daude ingresatuta. Antolakuntzari dagokionez, gaur egun, larrialdi zerbitzutik pasatu ondoren Gaixotasun Infekziosoen Unitateko, Pneumologia Saileko eta Zainketa Intentsiboetako Unitateko kideak ari gara pandemia honi aurre egiten. Gaur gaurkoz, bi solairu oso eta beste bi solairutako atal nagusiak koronabirusa duten gaixoentzako gorde ditugu. Hala ere, egoera une-oro ari da aldatzen eta uste dut solairu gehiago hartu beharra izango ditugula koronabirusaz kutsatutakoentzat.

◆ **Birusaz kutsatu zen 52 urteko erizain bat hil zen joan zen asteen, Encarni. Ezinegona, presioa, antsietatea, beldurra.... zenbaterainokoak dira langileon artean?**

Bai, zoritxarrez egunero jasaten ari garen presioa handia da eta igarri-igarrikoa. Gainera, une batzuetan gure buruak babesteko neurririk ez dugula izan sentitu dugu, pandemia hau oso azkar etorri delako. Baina orokorrean egoera honi aurre egiteko prestatuta gaudela uste dugu, eta hortan ari gara. Zentzu honetan iruditzen zait gizartearen laguntza ezinbestekoa dela.

◆ **Esana ziguten koronabirusak kutsatutakoen kopuruak eta hildakoenak gora egiten jarraituko zuela, baina datuek hotzikara sortzen dute. Felix Zubia Donostia Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateko medikuak izotzmendiaren irudia erabili du konparaziorako. Esan digu hamarretik zortzik sintomarik gabe edo ia sintomarik gabe pasatuko dutela gaitza eta horiek direla urpean daudenak, ur aza-lean daudela sintomadunak eta izotzmendiaren punta kasu larriek osatzen dutela. Zer dakigu koronabirusaz?**

Koronabirusa *Coronaviridae* familiako birus mota berri bat da. Covid-19 izeneko birus honen sorrerari buruz hainbat teoria daude eta, aditu askok Wuhan (Txina) merkatu batean sortu zela diote. Gaixoaren ezturekin eta doministikuarekin sortzen diren arnas jariakinekiko kontaktu estuaren bidez transmititzen da. Sekrezio horiek edozein gainazalera daude, eta beraz, horiek ukitzen dituen edozein pertsona kutsa daiteke, sudurrera, begietara edo ahora eramanez gero. Horregaitik da hain garrantzitsua eskuak ondo eta maiz garbitzea. Sintoma ohikoak ez zela, ezta mina, sukarrak eta aire faltaren sentazioa dira. Azkeneko datuen arabera, koronabirusaz kutsatutako %80k sukarrak eragiten duen arnas bideetako infekzio bat besterik ez dute izango, baina hala ere, kasu batzuetan okerrera egiten dute, eta birusak pneumonia larriak eragin ditzake, bereziki adin handiko pertsonetan edo bihotzeko eta biriketako gaixotasun kronikoak dituzten pertsonetan.

♦ **Zenbat irauten du ziklo batek, kutsatzen garenetik sendatzen garen arte? Birusaz kutsatzen denak zenbat egunez dauka arriskua beste norbait kutsatzeko?**

Alde batetik, inkubazio-aldia, hau da, infekzioaren eta gaitasunaren sintoma klinikoaren agerpenaren arteko denbora-tartea, 1 eta 14 egun bitartekoa da; batez beste, 5-6 egun izaten dira, baina gure esperientziaren arabera, sintomak hasi ondoren ez dakigu zehazki gaitxoak zenbat egunez izango duen arriskua beste norbait kutsatzeko. Horregatik, ospitaletik etxera bidali aurretik, Covid-19aren PCR testa (birusa gorputzean erreplikatzeko ari den edo ez jakiteko proba) egiten diegu. Bukatzeko, bi astez etxean bakarrik egotea gomendatzen diegu eta hartu beharreko neurriak zeintzuk diren azaltzen diegu: jateko tresnak tenperatura altuan garbitu, erabilitako arropak poltsa itxi batean sartu... Hilabete pasatu ondoren bularraldeko X Izpi bidezko kontrola egiten diegu gure kontsultetan.

♦ **Gaur gaurkoz ez dago botikarik koronabirusaren kontra egiteko, baina ari dira ikertzen. Aurrerapenik izan al da? Noizko izango da botika?**

Gaur egun era desberdinetan jarduten duten hiru botika ari gara erabiltzen larritasun egoeraren arabera, baina egia da gutxi ikertu dela orain arte. Era berean, Gurutzetako Ospitaleko ikertzaileak, Alemaniako, Frantziako eta Italiako ospitale batzuekin batera, ikerketa berri baten murgildu dira birusaren ARN Polymerasa entzima galarazten duen Remdesivir izeneko botika baten eraginak ezagutzeko.

♦ **Kasurik larrienak pneumonian bukatzen dutela entzun dugu eta arnasa hartzeko arazo handiak izaten dituztela. Pneumologia zara. Egoera kritikoena hori al da?**

Bai, gure esperientziaren arabera, birusak sortutako pneumoniak dakarren arnasa gutxiegitasuna izaten da egoera kritikoena eta hori saihestea edo agertzen denean oxigenoterapia bidez edo aireztapen mekanikoaren bidez aurre egitea izaten da gure lana.

♦ **Jaurlaritzatik ohartarazi dute oraindik ez duela goia jo, okerrera etortzeko dagoela alegia, eta etxean egotea dagozik. Zergatik da horren beharrezko konfinamendua zorrotz betetzea?**

Beste herrialde batzuetan ikusitakoaren arabera goia jotzeaz garestu uste dugu, baina hortarako neurriak hartzen ari gara eta hortan ere biztanle guztiok konfinamendua zorrotz betetzea ezinbestekoa da, kutsatutako pertsona bakoitzak batezbeste bizpahiru pertsona kutsa ditzakeela esaten baitute azkeneko ikerketek.

♦ **Jaurlaritzatik ohartarazi dute egoera oso larria dela, baina momentuz ez dagoela kolapso egoerarik, Madrilen-**

eta ikusten ari garen bezala. Hala ere, material eskasia satatu dute profesional askok, adinekoen egoitzetakoek-eta. Prestatuta gaude datorrenenerako? Zein da zuen egoera? Bai al daukazue behar beste babeserako ekipo?

Lehen esan bezala, material falta igarri dugu une askotan eta hori Euskal Herriko ospitale nagusietako batean lan egiten dudala. Ez dakit ziur nola ari diren lanean besteetan, baina entzun dudanez Madrileko eta Euskal Herriko adineko egoitzetan material falta nabarmena izaten ari dira. Nire kasuan egunero kutsatuta dauden pertsonak atenditzeko bata espezial bat, FP-3 deituriko maskarilak eta betaurreko espezialak erabiltzen ditut. Hasieran bata eta maskarila bakarrik erabiltzen nuen pertsona bakoitzeko, baina orain, ingresatutako kopurua dela-eta, egunean bata eta maskara berarekin atenditzen ditut kutsatutako pertsona guztiak, neurri handiak hartuta.

♦ **Konfinamendua ezarri digute. Ospitaleetan jendea bakarrik ari da hiltzen, zahar etxeetan bisitarik gabe daude adinekoak, dolurik ezin da egin, hiletak ere bertan behera gelditu direlako... Zer kalte psikologiko ekar ditzake ustez pandemiari aurre egiteko biderik eraginkorra denak?**



Seguraski gure eguneroko lanaren alderik gogorrena aipatu duzu. Nire esperientzia motza kontuan hartuta, psikologikoki nahiko kaltetuta ikusten ditut gaixoak, bereziki adin nagusikoak. Oso gogorra egiten zaie bakarrik egotea, bisitarik gabe. Beste aldetik, familiako kideen urduritasuna somatzen ari gara, oso gogorra baita etxeko bat gaixorik egotea eta ikusi ezin izatea. Egunero saiatzen gara bisita pasa ondoren senideei etxera edo sakelako telefonora deitzen, gaixoak nola dauden esateko eta ia berririk dugun adierazteko, eta hori izaten da laneko momenturik gogorrena. Etxeko eta mediku asko ikusi ditut momentu horietan hondoa jota.

♦ **Nekane Murga sailburuak adierazi du gaixoen %30 baino gehiago daudela ospitaleratuta. Hala ere, esan du ospitaleratzea beti ez dela aukerarik onena. Zergatik? Era berean, esan du hotelak eta egoitzak prestatzen ari direla, gaixoak artatzeko. Zer aurreikusten duzu datorren asterako? Noiz arte luza daiteke hau?**

Ospitalera benetan larri dauden gaixoak bakarrik iritsi behar dira, alde batetik, ditugun neurriak eta materiala benetan behar dutenei eskaintzeko, eta bestetik, kutsatze kopurua murrizteko. Ospitalean ikusten ari garena eta Madrilen ikusten ari garena ikusita, gero eta litekeenagoa da Euskal Herrian ere era horretako neurri batzuk hartu behar izatea.

♦ **Zer esango zenieke gure irakurleei?**

Indartsu mantendu behar garela, orain inoiz baino gehiago eta hau pandemia bat denez, etorri zen bezala jotango dela.



Konfinamenduak, birusaren hedatzea eragozteko neurriak eragin-korrena denak, eragin ditzakeen kalteez ohartarazi dute psikologoek. Bakardadean dauden adinekoei laguntzeko telefono zerbitzuak jarri dituzte martxan eta konfinamendu-orduak arinagoak egiteko milaka ekimen sortu dira azken egunotan ume zein helduentzat. Bada kolektibo bat, baina, bereziki gaizki ari dena pasatzen eta haiei erreparatu diegu gaur. Joan zen barikvaz geroztik autismoa duten herritarrek edo beste jokaera nahasmenduren bat dutenek kalera irteteko baimena dute, beti ere koronabirusaren kutsadura saihesteko neurriak hartuta. Arindua hartu dute, eta eskertu dute dekretuan aldaketa hori jasotzea, baina dena zaie gutxi Jimmy Brosa Gautenako familia zerbitzuen arduradunak azaldu duenez. Enpatia eskatu dute.

- AINARA ARGOITIA-



Autismoa dutenek arindua hartu dute

Salvador Illa Espainiako Osasun ministroak jakinarazi zuen egunean neurri berria Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta barikuan jarri zuten indarrean. Geroztik, "konfinamenduaren eraginez euren egoera okertuz gero", beharrezkoak dituzten irteera guztiak egin ahal dituzte autismoa dutenek, beti ere kutsatzea eragozteko neurriak errespetatuz. Eta jakina, irteera horiek beste pertsona batek lagunduta egin ahal dituzte. Espainiako Autismo Federazioak egindako eskaerari erantzun zion hala Espainiako Gobernuak. Gure bueltan, autismoaren inguruan gizartea sentsibilizatzeko Urola bailaran sortutako Marea Urdina elkarteak ere gauza bera eskatua zuen aurrez, Pedro Sanchez Espainiako presidentek ezarritako konfinamenduari buruzko dekretuak malgutasunik ez zuela jasotzen ikusita.

"Malgutasuna eskatzen genuen, eta zehaztasun handiagoa ere bai familia askok. Nahi izanez gero, interpretatu genezakeen aukera bazutela, baina zehatz ez zuen aipatzen gure problematika eta autismoa dutenekin lan egiten dugunok eta gure bueltako familiek behar genuen hau. Lasaitasua hartu dugu neurri berri honekin, premia berezia izan arren besteek zer esango zuten beldur zirelako gure familia asko", adierazi du Jimmy Brosa Gautenako familia zerbitzuen arduradunak, herritarrei "enpatia" eskatzeaz batera. Neurri berria indarrean jarri zen egunean bertan elkarrizketatu genuen Brosa eta gustura zen Gobernuak euren eskaera aintzat hartu zuelako, baina, aldi berean, kezkatua ere bazegoen egoera honek lehenaz gain familia askorengan eragin dezakeen karga psikologikoagatik.

"Egoera hau guztiontzako da zaila, baina autismoa dutenentzat, eta ondorioz, haien etxekoentzat are da zailagoa, autismoa dutenek ezinbestekoa dutelako errutina bat mantentzea, eta konfinamendu egoeran ezinezkoa zaielako askori", ohartarazi zuen. Autismoaren barruan gradu ezberdinak daudela na-

barmendu zuen eta ez daudela bi kasu berdin, baina oro har hartuta, autismoa dutenek errutinaren bidez ulertzen dutela inguruan gertatzen ari dena, eta hori kenduz gero, erreferentzialtasun guztia galtzen dutela. Bada beste kontu bat ere: "Ume guztiak daude etxean egunotan eta etxean dauzkaten baliabide guztiak erabilia ere, gurasoei ez zaie erraza haiek entretenitzea eta haien beharrak asetzea, baina kontuan izan behar dugu orokorrean autismoa dutenek interesa falta izaten dutela eta interes falta horrek are zailagoa egiten duela haiek entretenitzea. Familia askok ezin dituzte konfinamendua ezarri aurretik erabiltzen zituzten ihes-errutinak baliatu eta hori da orain momentuan duten zailtasun handiena".

Kalera behar dutenean irteteko aukerak lasaitasuna ekarri diela nabarmendu du Brosak, nahiz jakin familia askorentzat ez dela nahikoa izango. Hala ere, zehaztu du egoera larria dela eta arduraz jokatzeko denoi dagokigula. "Gure familiek badakite salbuespen kasuetan ere arduraz jokatu behar dela, malgutasuna nahierara erabiliz gero konfinamendu-egoera luzatzea etorriko delako, eta gaitza izugarri zabalitzea. Arduraz jokatzeko ari gara, eta ez dezala inork bestelakorik pentsatu. Premia bereziak dituzte gure familiek eta enpatia eskatzen dugu".

Zailtasunak zailtasun, gela egonkorretako ikasleen jarraipena egiten ari dira Gautenako profesionalak egunotan eta nahasmenak dituzten pertsonentzako Etxebizitza eta Aldi Baterako Egonaldi Zerbitzuan arretoa berezia jarrita ari dira. 78 pertsona dituzten etxe horietan eta etxe horietan birusa ez sartzeko neurri guztiak zorrotz dituzte, pertsona horietako asko sasoiko egon arren badauzkagutelako beste asko patologia gehiago dituztenak eta horrek ahulago egiten dituelako birusa honen aurrean. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera koordinatuta ari dira lanean Gautenako profesionalak etor daitekeenari aurre hartu nahian.

Konfinamendua, amen ahotan

Autismoa duten semeak dituzte Nerea Lodosok eta Brigida Iriondok. Arratsek, Ne-rearen semeak, 21 urte ditu, eta Mikelek, Brigidaren semeak, 7. Konfinamendua nola bizi duten kontatu digute.



► NEREA LODOSO

◆ Nola bizi duzue konfinamendua?

Nerea Lodoso: Urtean zehar, umore eta nerbio gorabehera handiak izaten ditu gure semeak, baina, une honetan, nahiko lasai eta pozik dago, eta hori, une zail honetan, pozgarria da guretzat. Konfinamendua, beraz, ez da hasieran uste izan genuen bezain beldurgarria. Badirudi, astiro-astiro, ohitzen ari garela.

Brigida Iriondo: Gure kasuan ez da hain latza izaten ari. Nahiko ondo eramaten ari da Mikel. Esango nuke, guk, gurasook, okerrago daramagula hau.

◆ Kalera irten ezin duela ulertu ezin duenari, nola azaltzen zaio gertatzen ari zaiguna?

N.L.: Gorabehera hau azaltzeko modu desberdinak izan daitezke, piktogramak, esaterako. Guk Arratsi azaldu genion jendea gaixorik zegoela, eta horregatik, denak etxean geundela. Kalera irten ginen lehenengo aldian, oso arraroa egin zitzaion, bere ohiko leku guztiak itxita aurkitu zituelako, baina badirudi, denborarekin ohitzen ari dela. Gainera, kontuan izan behar da, Arratsi jende pilaketa handiek nahasmendua eragiten diotela, eta kalea jenderik gabe ikusteak, nire ustetan, nolabait lasaitu egiten duela. Guretzat oso garrantzitsua da kalera irteteko eman diguten aukera, arnagune bat da gurea moduko egoera bizi duten familia askorentzat.

B.I.: Gure kasuan piktogramak erabiltzen ari gara Mikeli gertatzen ari dena azaltzeko eta hitzez ere azaldu diogu. Eta hasi da ulertzen, baina hasieran gaixo zegoena bera zela pentsatzen zuen.

◆ Autismoa dutenentzat beharrezkoa da errutina jarraitzea. Zein bide erabiltzen dituzue ohiko jardunei eusteko?

N.L.: Arratsen bizimodua egituratzen zuen baliabide garrantzitsuenak, Egunko Zentroa, une honetan itxita dago, eta horregatik, ahal den neurrian, eguneroko errutinak mantentzeko ahalegina egiten dugu. Baditugu horretarako baliabideak: Arratsez egunero arduratzen den zaintzailea, Udalak eskaini digun etxez etxeko zerbitzua eta etxetik bertatik lan egiteko eman didan erraztasuna; eta gu, etxeokak. Horri esker, Arratsek egunero jaso behar dituen arreta orduak beteta daude. Eta horretaz gain, saiatzen gara bere gustuko gauzak egiten: puzzleak egitea, irakurtzea, musika entzutea, eta zorionez, kalera irtetea. Etengabeko arreta eskatzen digu, baina une hauetan garrantzitsuenak da Arrats lasai egotea, eta oraingoaz, lortzen ari gara.

B.I.: Zaila egiten ari zaigu geneuzkan errutinei eustea, aisialdi asko geneukalako: piszinara joaten ginen, zaldian ibiltzera... eta hori dena itxita dago. Hori ulertzea zaila da ume guztientzat. Helduen beharrez asko hitz egiten da telebistan-eta egunotan, baina haurren beharrez oso gutxi eta krisi honek eragin handia izango du umeengan. Nire ustez, eurek izango dira kaltetuenak. Guk eguneroko jardueri eusteko kronograma bat osatu dugu piktogramekin, eta hitzez ere azaltzen diogu ulertzeko gaitasuna baduelako, baina den-dena ulertzea oso zaila da.

◆ Zaintzaileok nola bizi duzue hau?



► BRIGIDA IRIONDO

Nola egiten duzue zuen buruak zaintzeko?

N.L.: Guk, zorionez, nahiko ondo bizi dugu egoera hau, lasai gaude. Pertsona guztiak hartzen dituzten edo hartu behar harko lituzketen neurriak hartzen ditugu. Eta gure familiaren premiak ondo aseta daude. Bestalde, gizarte guztia ari da egoera zaila bizitzen. Egoera hau, berez, gogorra da guztiontzat. Denok daukagu kezkatuta eta triste egoteko arazoak, eta batzuek bat baino gehiago. Horregatik, animoak eman nahi dizkiet denei.

B.I.: Zaintzaileok egunero bizi dugun modu berean bizi dugu egoera hau, egia esan. Ez dago alde handirik. Gure buruak zaindu aurretik beste batzuek zaindu beharra daukagu. Hori beti da horrela. Eta behar berezirik badugun? Bai, asko, baina orain ez da momentua zeintzuk diren izendatzen hasteko.

◆ Enpatia eskatzen zuen Jimmy Brosak, konfinamendu garaian gehiago, ikusten duela joera bat herritarrek Poliziarena egiten hasteko. Sumatu duzu halakorik?

N.L.: Ez dut horrelakorik sentitu. Uste dut herrian jende guztiak ezagutzen gaituela, eta ulertzen duela zergatik irteten garen, guretzat beharrezko gauza bat dela. Hala ere, ez naiz harritzen jendea haserretzea, egunotan hedabideetan agertu diren irudiak ikusita.

B.I.: Bai, badago jendea Poliziarena egin nahi duena, baina orokorrean inbidiaz betetako jendea da. Tamalgarrria da.

▶ FELIX ZUBIA DONOSTIA OSPITALEKO ZAINKETA INTENTSIBOETAKO UNITATEKO MEDIKUA



Ez da gurean ohikoena, baina gaur, Euskadi Irratiko Arantxa Arza kazetariak Felix Zubia Donostia Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitateko medikuari egindako elkarrizketa ekarri dugu hona, oso argigarriak iruditu zitzaizkulako Zubiak emandako azalpenak (www.eitb.eus/osasunetxea). Elkarrizketa igandean, martxoaren 22an, egin zion Arzak Zubiari igandero Osasun Etxea tartean. Irakurtzen hasi aurretik, beraz, egin kontu, irakurle, bost egun pasatu direla solasaldi hau izan zutenetik.

- AINARA ARGOTIA -

“Nik, medikua naizen aldetik, ekonomia guztia etengo nuke”

♦ Esana ziguten kutsatuen eta hildakoen kopuruak gora eta gora egingo zuela, baina datuek hotzikara sortzen dute.

Gaitzaren hedapena nolakoa den gogoratzea komeni da, gaitza bera oso gaiztoa delako alde horretatik. Birusa hartuta, inkubazioak, sintomarik gabeko garaiak, 3-14 egun iraun ditzake; gehienetan, 5-7 egun. Laburbilduz, astebete. Ondoren, sintomek, arinak baldin badira, 7-10 egun irauten dute, gutxi gorabehera astebete, baina ikusi da okertzen diren kasuak aste horren bukaeran okertzen direla eta heriotzak ere 7-10 egun pasata gertatzen direla. Beraz, orain ikusten ari garen heriotza kasuak gaur hamabost egun kutsatu zirenenak dira. Horregatik, zenbakiei bakarrik begiratzen baldin badiegu, garbi ikusten da gaitzaren atzetik goazela. Sintomak agertu eta hamabost bat egunean, kutsatu dezake pertsona horrek beste norbait. Baina hemen guztian bada zerbait nabarmentzekoa: pertsona gehienek sintoma arinekin pasatzen dute gaitza. Astebete edo gutxiago egiten dute ondoezik. Gaixoeekin beraiekin egoteko aukera izan dut, eta gehienek zera esaten dute: “Baina hau katarro bat baino ez da! Bi eguneko sukarra izan dut, astebeteko eztula. Hau al da dena?”. Bai, eta hala da, baina batzuek, aste horren amaieran, 7-10. egunean, pneumonia larri bat garatzen dute eta arnasa hartzeko arazo larriak izaten dituzte. Okerren eramaten dutenak adinekoak [gizonezkoak emakumeak baino gehiago] eta gaixo kronikoak dira. Eta gero, hori ere ikusi dugulako, portzentaje oso-oso baxu batean eta arrisku txikiarekin pertsona gazteek ere garatzen dute pneumonia larri hori. Ziklo batek, beraz, gutxi gorabehera, bi-hiru aste irauten ditu, eta gaixo bakoitzak bi pertsona kutsatzen baldin baditu, bi aste pasata-edo, gaixo batetik bi gaixo izango ditugu; laugarren astean, 4 izango ditugu, hurrena, 8, gero 16, 32 ondoren, 64 gero, 128 hurrena, 236, 512, 1.024... Hau da, neurriak hartuta ere, emaitza ikusterako gaitza zabaldua dago, eta bitartean, gainera, biderkatu egin zaigu agerpena. Biderkapen hori ikusten ari gara egunotan, eta beraz, pentsatu behar dugu

gaur hiltzen ari zaizkigunak gaur hamabost bat egun kutsatu zirela. Astebete da neurri zorrotzagoak hartu zirela eta astebete honetan gertatutakoak eta kutsatutakoak datorren aste honetan agertuko zaizkigu. Beraz, datorren aste hau [martxoaren 22tik martxoaren 29ra artekoa] oso gogorra izango da zenbakien aldetik, bizipenen aldetik eta egoeren aldetik. Italian diote Bigarren Mundu Gerraz geroztik pasatu duten egoera larriena dela.

Badakigu gaitzak aurrera egingo duela, etorriko zaigula eta zenbat eta denbora gehiago pasatu datuak berdintzen, orduan eta larriagoa izango dela. Hau da, astebetean ehun badira positiboak, eta hurrena, berrehun, oraindik gorakoan gaude. Ehun eta ehun baldin badira, berriz, berdintze-maila batean egongo gara eta ondoren jaitsiera-fasea etorri zaigu. Beraz, aste gogorrik datozkigu eta presta gaitzen.

♦ Zer dakigu gaitzaz?

Pertsonarik gehienek, hamarretik zortzik, sintomarik gabe pasatzen dutela edo ia-ia konturatu gabe, baina birusa izan arren sintomarik agertzen ez duten horiek kutsa ditzakete beste batzuk. Ondorioz, ez dakigu une honetan ziur zeinek daukan gaitza eta zeinek ez. Horretarako milioika test beharko genituzke eta hori oso zaila da. Ondorenean, sintomak dituzten %20 horren %80k sintoma oso arinak dituzte, eta sintomak dituztenen %15-20k okerrera egiten dute, eta %5 bat dira benetan larri jartzen direnak. Kutsatutako norbaitekin kontaktua izan duten guztien %1a, alegia. Banaka hartuta, beraz, arriskua oso baxua da, baina era berean badakigu biztanleria osoaren %70 inguru egongo garela birusarekin harremanetan. Beraz denok hartu behar dugu neurriren bat hau gelditzeko, kopuruak hain handiak badira gaitza oso hedatua dagoelako baita. Izotz-mendiaren irudiak balio du azaltzeko zer dugun. Urpean daude sintomarik gabekoak, ur azalean, kutsatuak, eta izotz-mendiaren punta larrien daudenek osatzen dute. Horregatik herrialdetik herrialdera datuak ezberdinak dira. Alemanian, adibidez, kasu asko dituzte, baina hildako gutxi. Suedian

ere bai, Norvegiar ere berdin. Zergatik? Neurketa gehiago egin dituztelako eta sintomarik gabeko horiek atzematen ari direlako. Eta hemen, gurean, sintomarik gabekoei ez zaie testik egin.

♦ **Sintomarik gabeko horiei testak egingo balitzaizkie zerbaitetan aurreratuko genuke?**

Aurreratuko genuke pertsona horiek isolatu ahal izango genituzkeelako, baina nik uste une honetan eta ikusita zein hedatua dagoen gaitza isolamendu-neurriak unibertsalak izan behar direla. Gaitza hain hedatua dagoen momentuan, 'zu bai, zu ez' entresaka eginez ibiltzea ez da praktikoa, eta ezta guztiz ziurra ere. Arduraz jokatzera dagokigu. Badirudi denok zerbait egin behar dugula, bada momentu honetan etxean egotea eta itxuraz ezer ez egitea asko egitea da, eta hori egitea dagokigu. Horrez gain gogorazi behar dugu sintomak dituenak etxean gelditu behar duela, eskuak eta gainazalak sarri garbitu behar ditugula denok eta pertsonekin aurrez aurreko harremanak eten behar ditugula aldi batez.

♦ **Eusko Jaurlaritzatik ohartarazi dute egoera larria dela, baina momentuz kolapsorik ez dagoela. Materiala, arnasgailuak, maskarak... Prestatuta al gaude datorrenerako? Nahiko baliabide al dago?**

Ez dakit, baina egin kontu zelako dimentsioa duen honek. Guk momentuan badaukagu tokia, baina ez dakigu honek goia jöten duenean nola ibiliko garen. Efectua hamabost egunera ikusten ari gara, eta orain neurriak hartzen ez baldin badugu, ikaragarria etorriko zaigu. Ekipamenduz ari garela, guk momentuan ez daukagu babeserako ekipamenduen gabezirik, baina egia da lehen lerroan gaudela, eta beraz, ondoen hornituta daudenak garela. Baina egin kontu: Zainketa Intentsiboen Unitatean dagoen koronavirus kasu bakoitzeko hogeitabat babes-ekipo behar ditugu eguneko. Beraz, hogeitabat kasu izanda, 400 ekipo eguneko. Astebetean, 2.800 ekipo, eta Euskal Herrian, gutxi-gorabehera, 15.000 babes-ekipo beharko genituzke eguneko. Ospitale handi batean 3.000 langile ari dira lanean eta bakoitzari ekipo bana emanda, astebetean 20.000 bat ekipo beharko genituzke. Horri gehitu osasun etxeetan behar dituztenak, zahar etxeetan behar dituztenak... Egin kontu zenbat babes-ekipo behar ditugun orain, munduko herrialde guztietan eskatzen ari diren une honetan. Beraz, eskaera izugarria da, eta behar den guzti hori ekoizteko zailtasun handiak daude. Ez da diru kontua, ez da borontate kontua; posibilitate kontua da. Ekipo horiek modu estandarizatuan egiten dituzte, kontrol neurri zorrotzak hartuta, baina daudenak agortzen badira nik neuk ez dut bazterten beste bide batetik sortu behar izatea.

♦ **Gaitzak aurrea hartu digu, beraz?**

Ikaragarri aurretik doakigu gaitza. Italia iparraldean produktzioa guztiz etetea erabaki dute. Estatu espainiarrean ere badira hori eskatzen ari direnak eta egia da medikuntzaren ikuspegitik

“Momentu honetan etxean egotea eta itxuraz ezer ez egitea asko egitea da”

harreman guztiak eten behar direla eta leku guztietan. Nik, medikua naizen aldetik, ekonomia guztia etengo nuke,



guztiz beharrezkoak ez diren zerbitzuak izan ezik. Horrek ekonomiarik kalte handia egin diezaiokela? Bai, hala da, baina egoera halakoa da. Ekonomiarik kalte handia eragingo dio bai ala bai, baina osasunari ere bai, eta hor oreka bilatzea eta puntua hartzea ez da batere erraza, baina Txinako Gurutze Gorriak Italiara egindako bidaiari lan-harreman guztiak etetea gomendatu du. Ez da lana eten nahi berez. Pertsonen arteko harreman guztiak eten nahi dira, eta nik mediku naizen aldetik, gomendio hori bera egingo nuke, jakinda erabakia hartu behar duenak ez duela lan erraza.

♦ **Osasungintza kolapsatuko balitz, beste leku batzuetan gertatu den bezala, Zainketa Intentsiboetako medikuak oso erabaki zailak hartu beharrean egongo zaretela irakurri dugu. Alegia, aukeratu egin beharko duzuela nori lagundu.**

Irakurketa okerra egin da. Baliabideen faltatik egin da irakurketa eta ez pazientearen egoeraren ikuspegitik. Zainketa Intentsiboen Unitateko espezialista naiz, horretan egiten dut lan egunero eta guretzat egoera larrienetako bat da pneumonia duen gaixo bat arnasa hartu ezinik gelditzea, eta are gehiago jakinda, kasu honetan bezala, mikroorganismo hori hiltzeko botikarik ez daukagula. Pertsona sedatu egin behar da, lokartu egin behar da guztiz, arnasmailu bati lotu, eta sendatu arte itxaron. Bitartean, muskulua eta nerbioak kaltetu egiten dira, indarrak gabe gelditzen da pertsona, ultzerak izaten ditu, gaininfekzioak hartzen ditu geldi-geldi egonik, tutuari bestelako gailuak jarri behar dizkiogulako eta hortik mikroorganismoak sartu ahal direlako gorputzean.

Guzti hori gainditzeko sasoia behar da. Trakeotomia egin behar zaio, errehabilitazioa egin behar du gero, ospitalean bihuru hila beteko egonaldia egin behar du, ondorengo antsietateak, amesgaiztoak... eta pertsona bat ez baldin badugu gai ikusten hau gainditzeko, ez diogu egiten. Hau da, ez dugu kalbario batetik pasarazten jakinik ez dela irtengo. Hartzen diren erabaki gehienak hartzen ditugu pertsona horren sufrimendua ez luzatzeko eta alferrikako tratamendurik ez egiteko. Eta nork du ez gainditzeko arrisku handiena? Dementziaren bat dutenek, gaitasun funtzionalik ez dutenek edo lehendik ere indar gutxi dutenek, eta organoren bat eskas dutenek. Eta azkenik, adinaren aldagaia dator. Gauza asko irakurri dut honen inguruan eta ez zaizkit gustatu. Ez da adinagatik bakarrik hartzen den erabaki bat, eta erabakiak ez dira ezta ere baliabide faltagatik bakarrik hartzen. Oso gogorra da hori egitea eta pertsona bati edo ingurukoiei esatea ez duela gaitasunik egoera hau gainditzeko.

Halako erabakiak egunero hartu behar izaten ditugu, hala ere, eta bai, gure lanaren zatirik gogorrena da. Gertatzen dena da orain halako kasu asko dauzkagula eta etengabe aritu behar garela hau azaltzen. Guzti honek kalte psikologiko handiak ekarriko ditu. Ospitaleetan bakarrik ari da hiltzen jendea. Eta ez da hori bakarrik. Dolurik ere ezin da egin eta beilatokiak ere itxita daude.




Irudiak ere laga ditu bizi dugun egoera berezi honek

Ezohiko irudiak eta ezohiko lekuetan. Bi planotan eman dira irudiok, publikoan eta pribatuan. Batetik, kaleak, plazak eta zer esanik ez umeen jolasguneak inoiz baino hutsago eta isilago daude, bizirik gabe. Eta kalean dabilzan pertsona apurrak elkarren beldur, distantzia gordez. Bestetik, balkoiak bizitzaz bor-bor, inoiz ez bezala. Airean edo eguzkia hartzeko lekuak izateaz gainera, bakarrik ez gaudela ikusteko eta elkarrengandik gertuago egoteko guneak bilakatu dira balkoiak eta leihoak, txalok eman edo protesta egitera irten garen une horietan bereziki. Benetako irudiak, baina, balkoi eta leiho horien bestaldean, pribatua den eremu horretan ematen ari dira alarma eta konfinamendu egoera honetan. Eremu horretan sartzen ere laga diguzue zenbait herritarrek, ondorengo argazkietan ikus daitekeen moduan.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen bidali behar dira
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara.



Zorionak zure hirugarren urtebetetzean, neska handi! Ondo pasa eguna eta patxo pila bat familiakoekin partez.

Gure udaberriko larrosak 8 urte! Zorionak, **June**, etxekoekin eta bereziki, aitaitxoekin partez muxu pila!

Zorionak, **Jon!** Primeran pasatu genuen asteazkenean, nahiz eta kalera irtetea ezinezkoa izan! Muxu handi bat etxekoekin partez.

Zorionak, **Martin**, martxoaren 24an 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoekin partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

LANA.....
Eskaerak

Eskola partikularrak emateko edo umeak zaintzeko prest nago. Elgoibartarra naiz eta Magisteritza ikasten ari naiz. ☎ 684 221 398

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta beharrezko titulazioa ditut. ☎ 640 742 618

Garbiketa lanak egingo nituzke, etxeetan edo elkarreetan. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 637 102 725 / 943 741 410

Persona nagusiak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 895 039

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. ☎ 637 137 104

Adinekoak zainduko nituzke, gauzez ere bai, ospitalean zein etxean. ☎ 631 782 442

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta etxeko etxeko zaintzako titulua. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Lan bila nabil: adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat. ☎ 631 895 039

Eskola partikularrak ematen ditut: LH, DBH eta Batxilergoko matematikak, kontabilitatea, ekonomia finantzak... ☎ 666 042 710

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere prest. Orduka. Berehala hasteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan eta asteburuetan. ☎ 631 081 501

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldeetan. ☎ 638 857 100



Eskaintzak

Hortz klinika baterako auxiliarrak behar da, amatasun baimen bat betetzeko. Interesatuak utzi mezu bat erantzungailuan. ☎ 943 742 919

BESTELAKOAK.....

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro. ☎ 688 634 044



| | |
|--|--|
|   <p>ROSA M^a PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p> | <p>Osasun-alerta dela-eta, etxean geratu behar duzue, eta nire zerbitzua ematen ari naizen higiezinetakoz zerbitzu komunitarioen funtzionamendua bermatzeko, jakinarazten dizuet finken administrazio honek lanean jarraitzen duela eta zuen eskura dagoela. Beraz, beti bezala, zuen higiezinaren eragina izan dezakeen edozein gorabehera transmititzen jarraitu ahal izango duzue, pertsonalki edo taldean, telefonoz edo posta elektronikoz, kudeaketa ahalik eta lasterren egin dezagun.</p> <p>Oraingoz, Finka Administrazioaren Elkargoaren jarraibideei jarraituz, Finka Kolegiatuaren Administrazioa gisa, etxebateen komunitate-bilera guztiak atzeratu egin behar dira. Beraz, komunitatearen egiteko ditugun bilerekin edo komunitatearen hartzeko ditugun akordioekin eta komunitate-gaiekin dagokienez, lasaitasuna helarazten dizuet. Izan ere, tramitazio administratibo guztiak geldirik daude-eta.</p> <p>Komunitateko bilerak egitea ahalbidetzen zaigun unean, finken administrazioa honek aurrez aurreko bilera programatuekin jarraituko du.</p> <p>Azkenik, nire lehenetarik handiena zuen komunitatearen funtzionamendua egokia bermatzea da: bai irisgarritasunari dagokionean, eta baita, kontratatutako zerbitzuei, matxurei, berogailuen hornidurari, energiari, telekomunikazioei edo beste edozein alderdiri dagokionean. Beraz, zure esanetara gaude.</p> |
|  <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p> | |

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| GUARDIAK | | | | | | | |
|----------------------------|---------------------|------------------------|-------------------------|----------------------------|--------------------------|----------------------------|----------------------|
| Egunez: 09:00-22:00 | | Iluntzean: 20:00-22:00 | | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) | | | |
| 27 BARIKAKUA | 28 ZAPATUA | 29 DOMEKA | 30 ASTELEHENA | 31 MARTITZENA | 1 EGUAZTENA | 2 EGUENA | 3 BARIKAKUA |
| Egunez * Fernandez | Egunez Yudego | Egunez Yudego | Egunez * Oruesagasti | Egunez Barrenetxea | Egunez * Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Arriola |
| Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Yudego | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Arriola |

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Martxoaren 12tik 25era hildakoak

- **Mari Tere Landa Mendikute**
79 urte. Martxoaren 12an hil zen. Elgoibar.
- **Pilar Uria Basurto**
84 urte. Martxoaren 15ean hil zen. Elgoibar.
- **Juan Carlos Etxeberria Larrañaga**
70 urte. Martxoaren 15ean hil zen. Elgoibar.
- **Maria Pilar Peñalba Arrieta**
98 urte. Martxoaren 16an hil zen. Elgoibar.
- **Pilar Marin Toribio**
56 urte. Martxoaren 17an hil zen. Elgoibar.
- **Enrike Iriondo Ansola**
87 urte. Martxoaren 21ean hil zen. Elgoibar.
- **Juan Barrenetxea Aranzabia "Altzate"**
76 urte. Martxoaren 23an hil zen. Elgoibar.
- **Juan Jose Eizaguirre Longarte**
71 urte. Martxoaren 24an hil zen. Mendaro.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 29an, **ordubetez aurreratu beharko** da ordularia; 2:00etan 3:00ak izango dira.





LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com


943 744 457

UMEEN HILABETEA

- ❖ Lastairak **%30**
- ❖ Panpinak **%40**
- ❖ Mantak eta izarak **%40**
- ❖ Burkoak eta ohe babesgarriak **%15**



Lastairs, 15° dituen tako anatomikoa eta zilindro ez-labaingarriak



Apirilaren 6an kaleratuko dugu hurrengo BARREN astekaria

Elgoibarko Izarrako beharginok, tartean BARREN Komunikazio taldekook, hainbat neurri adostu ditugu koronabirusa hedatzea sahiesteko. Besteak beste, langileak ez diren beste pertsonekin ahalik eta zuzeneko kontaktu gutxien edukitzea da gure helburua.

Asmo hori betetzeko hainbat neurri hartu ditugu:

Merkatu txikia, zorion agurrak eta gutunak:

- Telefonoz: **943 744 112**
- Watsapp-ez: **688 634 044**
- Eposta bidez: **barren@elgoibarkoizarra.eus**

Publizitatea eta eskelak/urteurrenak

- Telefonoz: **943 743 704 / 688 634 044**
- Eposta bidez: **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**



MILAR BIRE

EZOHIKO GUTXIENENKO ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak.
Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu.
Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

943 741 487